

Han daudelako

OSO gazteak dira. Orain hirurogei milioi urte mugitzen hasi ziren jadanik, tertziarioan, baina izatez orain seihun mila urte soilik jaio ziren. Mendi handienak dira, seguru asko ederrenak, zailenak, probokatzaileenak eta giza sakrifizio gehien exijitzen dutenak. Bestelako dimentsioa suposatzen dute. Zerutik hurbilen daudenak dira. Eta heriotzetik. Eli-teko mendizale askoren azken helburua dira eta beraietariko asko bueltatzen ez direneko bidaia.

Beren erakargarritasuna temakoa eta izugarria da, Indiako Kimek esango lukeen bezala. Han goian munduko zortzimilatako guztiak daude eta zazpimilatakoak (350 baino gehiago). Baina ez hauek soilik. Seimilatakoen zerrenda luze bat dago ere, beraietariko asko birjinak oraindik. Eta horma handiren beste zerrenda bat, arriskuarekiko gorrotorik gabeko eskalatazailen bisita itxaroten. Gonbidapen irekia da, munduko edozein herri-tako aparteko eskalatazailen menuan parte hartzen duena.

Euskal mendizalegoarentzat Himalaiarekiko harremanak berandu gauzatu ziren. Ez nago seguru norena izan zen, orain 30 urte, Everesterako espedizioa antolatzeke lehen ideia hura. Baina uste dudana da egundoko ideia izan zela eta, arrakasta izateko eta tontorra hantxe bertan lortzeko oso gutxi geratu izan zela aparte utziz, gure mendizaleei atek irekitzeko balio izan zuela eta baita berauek tontor altuetarako arineketa amorratuan hasi zitezen gogatsu jartzeko ere.

Ordurarte gure urratsak han ia deusez ziren, mendizale kataluindarrek, adibidez, Himalaian maila desberdinetako abentura batzu jadanik burutuak zituzten bitartean. Gogoratu nahi nuke urte honetan, Tximist espedizioaren 25. urteurrenarenean, kointzidentzia bat ematen dela: apirilaren 29.ean hain zuzen ere, Oiarzabalek bere lagunekin batera Annapurnan bere hamalaugarren zortzimilatakoa lortzen zuen egun berean, mendizerra berean, 25 urte lehenago, Angladak, Pons eta Civisek beren lehen zortzimilatakoa igotzea lortu zutela, Annapurnaren ekialdeko tontorra, ordurarte eskalatu gabarik zegoena.

Zer esanik ez egoera egun bestelakoa da oso. Ezjakintasunak, sarbideek eta baimenek sorterazten zituzten oztopo klasikoetariko asko gainditu egin dira. Aukerak gaur egun muga-gabeak dira. Adibiderik erakusgarriena MIRE espedizio amerikarra eta bere helburu handigurak izan daitezke: Mallory eta Irvingen igoeraren misterioa argitzea, Everest, Lhotse eta Nuptseren arteko gailurtzaren uztaidura lortzea, Everesteko tontorrean sherpa baten vivaca programatzea (luxuzko kontratuaz eta tontorrera askotan heldu izana), mundu osoko zale guztiekiko chat zibernetikoa posibilitatzea,..... Baina, heltzen diren berrien arauera, espedizio hauxe izan daiteke ere errentagarritasun ekonomikoaren helburuari lehentasuna ematen zaionean gertatzen den abenturaren komertzializazioaren mehatxu ikaragarrien erakuslea.

Porque están allí

SON muy jóvenes. Ya empezaron a removerse hace sesenta millones de años, en el terciario, pero en realidad nacieron sólo hace seiscientos mil años. Son las montañas más grandes, probablemente las más hermosas, las más difíciles, las más provocativas y las que más sacrificios humanos exigen. Suponen otra dimensión. Son las que más cerca están del cielo. Y de la muerte. Es el último objetivo de muchos montañeros de élite y es el viaje del que no vuelven muchos de ellos.

Su atractivo es apasionante y terrible, como diría Kim. Allí arriba están todos los ochomiles y todos los sietemiles (más de 350) del mundo. Pero no sólo ellos. También hay una larga lista de seismiles, muchos de ellos vírgenes todavía. Y de grandes paredes, esperando la visita de escaladores desprovistos de aversión al riesgo. Es una invitación abierta que forma parte del menú de los escaladores selectos de cualquier país del mundo.

Para el alpinismo vasco la relación con el Himalaya fue tardía. Yo no sé de quién fue aquella primera idea, hace treinta años, de organizar una expedición al Everest. Pero lo que creo es que fue una idea genial y que, aparte de que estuvo a punto de tener éxito y de alcanzar la cima allí mismo, sirvió para abrir la puerta y entusiasmar a nuestros montañeros a una carrera frenética hacia las altas cumbres.

Hasta entonces nuestros pasos allí habían sido prácticamente nulos, cuando montañeros catalanes, por ejemplo, llevaban ya unas cuantas aventuras vividas en el Himalaya a distintos niveles. Me gustaría recordar que este año, el del 25 aniversario de la expedición Tximist, se da la coincidencia de que, precisamente el 29 de abril, el día que Oiarzabal lograba con sus compañeros en el Annapurna su decimocuarto ochomil, ese mismo día, en ese mismo macizo, 25 años antes, Anglada, Pons y Civis conseguían ascender a su primer ochomil, la cima este del Annapurna, inescalada hasta entonces.

Evidentemente la situación ahora es muy distinta. Se han superado muchas de las dificultades clásicas de desconocimiento, accesos y permisos. Las oportunidades son inmensas. El exponente quizás sea la expedición americana MIRE y sus ambiciosos objetivos: resolver el misterio de la ascensión de Mallory e Irving, conseguir el encadenamiento del cresterío Everest, Lhotse y Nuptse, programar el vivac en la cumbre del Everest de un sherpa (de los de contrato de lujo, con un historial de muchas llegadas a la punta), posibilitar el chat cibernético con todos los aficionados del mundo... Y esa misma expedición puede ser también el exponente de las formidables amenazas de la comercialización de la aventura cuando se prioriza el objetivo de la rentabilidad económica.